

- Entzutekuak: Pintxo-potea, herriko taberna giroa berotzeko
- Zer berri: Udalak hiru proiektu jarri ditu martxan

soraluzeko
hamabostekaria **259.** alea
2012ko otsailaren 10ean

259. -pilean

mugar

Zigor Sololuze
Mugaritz jatetxeko metrea

TXOTY!!!

Pil-pileanekin Larre-Gain Sagardotegira irteeraaaaa!!

Martxoaren 31n, zapatua
Irteera: 12.30ean, Estaziñotik
 Bazkaria + autobusa
Bazkideentzat: 35€tan
Bazkide ez direnentzat: 40€tan
Txartelak salgai:
 Iratxo, Arrano eta Gaztelupen
Azken eguna martxoaren 20a

PIL-PILEAN

Diseñua: Pil-pilean Diseinu Grafikoa

Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza
 Jabe Elkarteak
 Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.
 Tlfonua: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82

20590 Soraluze
 GIPUZKOA

Elizpe Hartz klinika

Gure zerbitzuak:
 - Ortodontzia ikustezina
 - Inplanteak

DOMAINIKO BERRIKUSKETAK
 FINANTZAKETA ZURE NELURRIRA
 KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hartz programa)

Tel. 943 75 25 67
 Elizburu 3 beheko, Soraluze

TXURITXU

Zuekin gozatzeko

943 75 24 43

Santa Ana kalea 32 beheko

Etxabe Harategia

Euskal txabalkia Bildotsa

Merkatu Plaza 6 - 7 Postuak
 T. 943 75 23 75

Soraluzeko Kooperatiba Elkarte

1910etik

943 75 13 45

KM Desing

Diseinua eta Sormena

Polígono Amillaga, nº 5
 Tlf.: 943 76 99 85
 20570 BERGARA (Gipuzkoa)
 Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Hormo-armairuak
- Barruko altzairuak



IÑAKI AMUATEGI



OSKAR ELIZBURU

HISPANUEN IRAULTZA

Eup, Oskar! Azarua bero, negua gero! Diño esaera zaharrak eta azkenian etorri, etorri dok, itxoitia besterik ez jeuan! Gorputza berotzeko; salda berua, sutondua eta igurtzi on batzuk ez dittuk txarrak. Norberan ama hizkuntzakin sartzen diranian, ostera, burua berotzen jaku. Euskaldun gehixenoi gertatu jakula esango neukek. Horretaz jabetzeko, Juan Mari Torrealdairen “Euskararen liburu beltza” irakurtzia besterik ez jaok. Baina ezeik pentsatu, euskaldunok bakarrik amorratzen garanik hizkuntza kontuekin, ez horixe! Aurtengo *Urrezko Globuen* sari banaketan, Banderas-Hayek aktore hispanueri gertautakua etorri jatak burura: Ricky izeneko aurkezliak, adar-jotzaillia bera, Antonio-Sandra parejia aurkeztu ebanian, euren azentu hispanua zala eta txisteren bat egin ei jeuan milaka ikuslen aurrian. Eeeeepa! Sekula halakorik! Banderas hasarre, *Calderon de la Barcan* poema bat irakurtzen erantzun jetsan Rickyri eta hortik prentsako titularretara ezer gutxi; “Iraultza hispanua” izan dala, “azentu espainiarra” eduki dabela aurtengo Globuak... Beste batzuen artian, holako perlak irakurri heinkez zeremonian osteko “El Mundo” egunkariko foruan:

“Batziek uste dute ingelesez mintzo direlako gainerako hizkuntza guztiak indigenenak direla. Ikasiko dute gainerakoen lana errespetatzen. Bide batez, kulturizatu daitezela eta espainola ikas dezatela, ingelesa baino baliagarriagoa izango baitute sarri” Irakurri nebanian, ingelesa jartzen daben lekuan espainola jarri eta espainolan lekuan euskaria jarritta, Txillardegiri egin geinkixon omenaldirik onena izango zala pentsau najuan, ez dok ala uste Oskar?

“Norberan ama hizkuntzakin sartzen diranian, ostera, burua berotzen jaku”

Iñaki Amuategi

“Españolaren gainbeheriakin nerbioso ipiñi ete jakuzak, ba?”

Oskar Elizburu

Ene! Españolaren gainbeheriakin *nerbioso* ipiñi ete jakuzak, ba? Zer eta *Ameriketan* emoten jotsen balio eskasiagaittik? Tximiñuak tximiñua ispilluaren aurrian ezagutu?

Españolek urtietan eta urtietan Euskeriari prestijioa kentzen emon daben denboria besterena onartzen eta ikasten emon ezkeru, beste toki batian egongo litzakezik eta, bide batez, giñakezik bestiok. Berena ona izateko bestiena zapaltzia, zikintzia eta baztertzia izan dok haien egitekua; eta erabiltzaillia zigortzia.

Horren berri ederto jaso jok Koldo Izagirrek *Autopsiarako frogak* liburuan. Liburu argigarria dok, benetan; izan be, guraso eta aittitta-amamek hainbestetan kontatutako istorixo negargarri-bildurgarrixen bildumia eta azalpena dok. Irakurtziak halako tristura moduko bat sortarazi jostan lehenengo; eta etsipenerako bidia.

Baina gero, adibide eta azalpenekin, gure hizkuntzari eusten euskaldunok egin dogun lan itzela ikusteko aukeria emon jostak. Demasa izan dok jasotako zapalkuntzia, baiña eutsi egin jakok eta eutsi egingo jotsagu, duda barik.

Ingelesez dauken doiñuagaittik txiste ziztrina egin dotselako sutan jarri dittuk espainolak, bai. Hemen *Txomin del Regato* estiloko zenbati egin ei jakok barre, barre gaiztoa, *Española* erabiltzeko moduagaittik. Gutxietsi eta baztertu, eta gure etxietan sinistu erain EUSKERIA KALTEGARRIXA ZALA, *Española* ikasteko eta jakittekota traba zala.

Ba guk geuriari; eta geure arazuei aurre egittekota modurik onena Euskaria danerako dala erakustia dok: jolasteko, maitatzeko, ikasteko edota barre egittekota, *Euskaraz bizi nahi juagu, eta biziko gaittuk!*

Goguan hartzeko

Zuhaitz eraitsi berriak haren lekuan beste bat behar du landatu, euskarak ere gurasoetatik seme-alabetara bihotzez zabaldu.

Antxon Narbaiza



GUTUNAK

Otsailak 13

Tortura dela eta, hemen idazten ari garenok ez dugu bere existentziaren buruzko inolako zalantzarik, sufritu dugulako lekuko bilakatu gara. Baina ez gatoz ikaragarritzko historiak kontatzen, ez, aldizkaritxo honek ez du horrelakorik merezi, ez da inora izua sartzeko egina. Gainera torturari buruz ezer jakin nahi izan duenak badaki zer dagoen eta informatu ez dagoenak berdin jarraituko du hemendik aurrera ere.

Tortura gauza unibertuala da, aro eta bazter guztietan babestua. Ukatua, izkutatua, ixilarazia eta ixildua ere izan da, da eta izango da, ez dugu zalantzarik. "España es una democracia" dino batek, eta bai, hala da, arrazoi osoa! Eta hala izan da historian zehar España Inperio Demokratikoa, beraz, trankil egon gaitzake. Euskal Herrian tortura beti izan da eta izango da demokratikoa; honi buruz existitzen ez den legalitatearen barruan, komisaldegietan torturapean eta epai gabe hil direnak, ez baitira erahilak izan, demokratikoki hil dira. Eta inoiz legalki kondenatutako zenbait hiltzaile eta torturatzaile txalo-

tuak eta segituan kaleratuak izan dira, demokratikoki noski. Inor, inoiz demokratikoki kondekoratua ere izan da, musika banda eta guzti, baina guzti hau ez da España Gobernuari esker bakarrik gertatu, tortura ukatu, izkutatu eta ixilarazten duten guzti hoiek ere euren pisua dute guzti honetan.

Biktimen sufrimendua dela eta, guztien sufrimendua kontuan hartu behar dela uste dugu, arrazoi guztien gainetik, guztien sufrimendua. Baina lagun, familia eta presoekiko mendeku tortura hau onartzen, asimilatzen edo babesten den bitartean ez da zilegi España demokratikoa hau onartzea.

Euskal preso politikoen kontrako torturarekin **AMAITU!**

STOP TORTURARI gaur eta betiko **STOP!**

Deialdiak:

OTSAILAK 13, astelehena

19:00 **KONZENTRA** Plaza Berrixan

19:30 **BIDEO EMANALDIA** Gaztetxean

Koldo Kareaga eta Soraluzeko hainbat torturatu gehiago

EAJ-PNVk Bilduri leporatzen dio, 2012ko aurrekontuaren interpretazio okerra gitea

Azkeneko hilabeteetan 2012ko aurrekontu proiektua ari gara eztabaidatzen. Antza denez, Udal Gobernuaren iritziz, aurrekontuaren itxiera – guztira 3.500.000 euro – oztopatzen duena honakoa da: zinegotziek jasotzen dituzten 45.000 euroak. Honen aurrean EAJ-PNVren udal taldeak honakoa adierazi nahi du:

1- Urtarrilaren 18an, oposizioak proposatuta (PNV eta PSE-EE), aho batez onartu zen zinegotzien diru kopurua %25 jaitea. Egoera zaila da eta beraz, indarrak batu behar dira.

2- Gure ustez, aurrekontuan eragin zuzena duten eta Udal Gobernuak aipatzen ez dituen bi gai garrantzitsu daude: lehenengoa, Udalerrietako Finantziario Foru Funtzaren itzultzea eta bigarrena, uholdeek eragindako kalteen finantziarioa. Foru Aldundiak ez die oraindik, irtenbiderik aurkitu.

3- Foru Funtzari buruz, itzuli beharreko diru kopurua 285.000 euro dira. Prentzaren bidez jakin ahal izan dugunez, %50 otsailean itzuli behar dugu eta

gainontzekoa urtea amaitu baino lehen. Honenbestez, ez dakigu aurrekontuan sartu behar den kopurua zein den. Egoera hau onartezina da, izan ere, Gipuzkoako udal guztiak berdin daude.

4- Uholdeek eragindako kalteen gainean – guztira 200.000 euro – ez dakigu guztia finantziatuko zaigun edo aldiz, zenbatekoa izango den aurrekontu saila.

5- Ondorioz, Soraluzeko EAJ-PNV udal taldearen iritziz, Bilduk aurrekontuaren interpretazio okerra egiten du; alabaina, haien ustez, zinegotziek jasotzen duten diru kopurua da arazoa eta ez aipatutako beste bi gaiak. Beraz, Bilduk jarrera populista du. Era berean, gure aburuz, aurrekontua benetan baldintzatzen duten gaiak uholdeek eragindako kalteen konponketa zein Udalerrietako Finantziario Foru Funtzari itzuli behar zion dirua dira. Hortaz, Udal gobernuari honakoa eskatzen diogu: aldundian behar den kudeaketa egiteko, gai hauei irtenbidea aurkitzeko. Informazio gehiago: www.soraluzepnv.com

SORALUZKO EAJ/PNV UDAL TALDEA

Pil-pilean

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Errabal kalea 15- 1., PK 27 – 20590 Soraluze, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** aldizkaria@pilpilean.com **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Urribetxerria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarteak ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Saibilburuordetza



SORALUZKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

bittartetik



Arrate Gisasola
Herria eta hezkuntza

—Ama, paper hau emon deskue eskolan.

Guardasol eta merienda artian emon detsat begiratu idatzixari. Irakasleek lan uztea. —Ama! Zer jartzen dau? —Eskolako irakasliek lan larregi eukiko dabela, zueri kasu egitteko zailtasun gehixago. —Zer? —Irakasliek pilo bat maitte zaittuztela baina ez detsela lana ondo egitten lagatzen...

Gatxa da hiru urteko alabiari gai batzuk azaltzia, gatxa, idatzitxo baten, sakontasun eta larrittasunian argi apur bat ipintzia. Baina hori ezin da gai bat alboratzeko arrazoia izan. Hezkuntza herritar danon arduria da, baina hezkuntza sistema honek irakasleguan gain ardurara lartxo lagatzen diharduanan ustia dakat aspaldixan. Erasoz barri honek gainera egoeria okertu besterik ez dau egingo. Herriko haur eta gaztien eskubidiak ziharo zapalduta. Herritarrok badakagu zer esana, elkartasun mezuetatik harutzago hausnarketa eta lanerako deia egin nahi neuke; aitta, ama, ikasle...herritar daneri. Herri jakintza nahi dugu eta jakintza herriarentzat nahi! A! Besarkada bat Lodosara, euskaraz ikasteko, euskaraz bizitzeko etengabeko burrukan diharduten irakasle, guraso, ikasle eta herritarreri.

Pintxo potea, herriko taberna giroa berotzeko

Duela bi urte inguru hasi ziren Txoko, Bolia eta Batzoki tabernak pintxo potea antolatzen. Aurten, Arrano eta Gaztelupe tabernak gehitu dira proposamenara. Herriko taberna giroa sustatu eta kaleak jendez betetzeko, eguenero, 18:30etik 21:30era euro eta hogeitazentimo ordaintzearen truke kria ardo kopatxoa edo San Miguel botela eta pintxo goxoa dastatzeko aukera izango dute animatzen diren herritar denek.

Pintxo potia modan dago. Zer da zehazki lortu nahi dozuena?

Soraluzetarrak golfo familia daukagu baina badira pare bat urte poteua jaitsi eta herriko giroa apaldu egin dala. Krisi hitzak beldur haundixa sortu dau gudanongan eta mamuari aurre egitteko danok jarri bihar dogu gure aldetik. Pintxo potia egitteko taberna ibilbidia zehaztu dogu. Jendia kalera etaratzeko aitzakixia jartzia nahi dogu.

Krisixari aurre egitteko neurria da orduan?

Tabakuan legiak jendian ohiturak aldatu ditu baita eta ordu batzutan tabernan ez da inor egoten. Ekimena sustatzeko arrazoi nagusixa krisixa dala esan geinke baina badira beste batzuk. Prezixo oso altuak eta poteuan jeitsieria, esate baterako. Eguena egun ona da lagunekin urtetzeko, aste bukaeria, asteburua gertu... Adin tarte ezberdinetako herritarren topalekua bilakatu nahi dogu pintxo potia.

((ENTZUTEKUAK))



Ekimena bere gain hartu duten tabernariak.

Herritarren partetik erantzun ona izan dozu?

Arrazoizko prezio baten truke herritarrek eskertzen dittue pintxo potia moduko ekimen herrikoiak.

Eta tabernariak etekinik badozue?

Onura ekonomikorik ez badaukagu be, tabernako giroa berotzeko balixo dau eta horrek sasoiotan ez dauka prezixorik!

*Taberna-
ko giroa berot-
ziaz garaiotan
ez dauka
prezixorik!*

Aurrera begira beste proposamenen baten pentsatu dozu?

Momentuz pintxo potiari eutsi nahi dotsagu, giroa gero eta beroa-
gua izatia ahaleginduz. Hemendik gutxira ekimenera taberna gehixago batuko dirala pentsatzen dogu.

Bukatzeko, potiari laguntzeko pintxo goxoren bat...

Euskaldunak jatun onak gara, eta jendiak danetarik jaten dau! Ahalegintzen gara pintxuan itxuria zaintzen. Tortilla, txanpixak, txakia, urdaiazpiakua eta gaztaia... ez dabe inoiz hutsik egitten!

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea Tel. 943 75 16 46 • 639 179 696

HERRI BATZARRA
Deialdia

GAIA: 2012 urteko ildo politikoa
Otsailak 23, eguena. Arratsaldeko 19:00etan Zinean.

Ekarri zure iritzia eta ilusioa!

SORALUZeko EZKER ABERTZALEA

Merkatuko ordenantzak onartu dituzte

Eguazteneko Udaltzarrean merkatu plazako ordenantza erregulatuak behin betiko onartuta geratu ziren, Gobernu Taldearen eta EAJren aldeko 9 boturekin eta PSE-EEren abstentzioarekin. Alderdi sozialistak bost alegazio aurkeztu zituen, puntuz-puntu bozkatu ziren. PSE-EE Udaltzarrean mozioa haur jaiaberrien bidegabeko jabetzari eta araz kontrako adopzioei buruzkoa, aho batez onartu zuten.

EAJ eta PSE-EE bosgarren edukiontzia alde

Zaborren kudeaketari buruzko lau puntuko mozioa, EAJk eta PSE-EEk elkarrekin aurkeztutakoa ere onartu egin zuten. Bi alderdiek bosgarren edukiontzia aldeko jarrera argia agertu zuten. Jeltzaleek atez-ateko sistema "askoz ere garestiagoa" dela esan zuten. Sozialistek ere kontrako jarrera azladu duten, atez-atekoa "zikina" eta "kutsakorragoa" dela eta hainbat elikagairen kontsumoa mugatzen duela. Gobernu Taldeak erantzun zuen ezin dela esan garestiagoa izango denik azterketa bat egin gabe eta bere helburua zaborra kudeatzeko beste aukera batzuk aztertzea dela. Bilduk Kutxabanken gainean aurkeztutako mozioa onartu egin zen, sozialistek eta gobernu taldeak alde bozkatu zuten. EAJk kontra bozkatu zuen udaletik gaineko gaia dela argudiatuz.



Gobernu Taldeak zaborrak kudeatzeko hainbat sistema aztertu nahi ditu.

Herri bilgunearen bilera gaur

Urtarrilean Euskal Preso Politiko eta Iheslarien eskubideak babesteko loratu zen herri mugimendua osatzen eta sendotzeko lanetan dihardute bere partaideek. Hilean behin batzen dira eta urte osoko plangintza zehaztea da asmo nagusia. Gaur izango da hurrengo bilera, arratsaldeko 18:30ean Zinean.



KZgunea goizez zabalik

"Openideiak" elkar laguntzeko eta partaidetzarako gune birtuala, AVG edo Avast izeneko birusen kontrako bertsioak instalatzeko ikastaroa edota Metaposta dokumentu gordailu-elektronikoa zertan datzan ikasi eta bertan kontu bat sortu ahaliko da herriko KZgunean. Asteleheneetik barixakura goizetik dira ikastaroak, 9.00etatik 13.00era.

UEUren eskutik ikastaro eskaintza zabala udaberriko

Martxoan hastekoak dira hainbat ikastaro UEUren Donostia eta Eibarko egoitzetan. Ondorengo ikastaroak Eibarko Markeskua Jauregian emango dira:

Martxoan, Teknologia berriak eta inimitatea (17tik 24ra), Komunikazio eraginkorren artea, II. modulua (17tik 24ra), Argazkigintza dokumentala (21etik maiatzaren 16ra) eta Sormena lantzeko tailerra (30etik 31ra).

Apirilean, Kantuz eta jolastuz komunikazioa lantzen, Moodle-ren erabilera aurreratua, Gaixotasunen sustrai emozionala eta Irakaslea eszena.

Izen ematea eta informazio gehiago: www.ueu.org

Arazorik ez lehen elurteetan

Azken bi asteotan urteko lehen elurteak eman dira. Elurra mara-mara etengabe bota du eta herria eta inguruak txuri kolorez jantzi badiu ere, ez da aparteko arazorik sortu. Udaltzarrean erositako palarekin mendibideak garbitu eta bideak libratu egin dituzte. Aipatzekoa, elurra izan den bitartean peatonalizazioa bertan behera geratu dela, kotxei erreztasunak emate aldera.





MENDIZABAL
okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Baltegieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE



ARRANO
tabernia

etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua

etxera

Maisuen etxeetako bost esleitu dira

Eraberritu berri diren sei etxebizitzak erabiltzeko bederatzi eskaera jaso zituen udalak, baina bostek bakarrik betetzen zituzten baldintzak. Apirilerako bost etxe izango dira erabilgarri eta seigarrena erabiltzeko baldintzen deialdia berriz egin beharko du udalak. Momentuz hamazazpi herritar biziko dira bertan.

Elkarretaratzea tortura salatzeko

Otsailaren 13an Torturaren Aurkako Nazioarteko Egunean, torturak salatu dituzten hainbat herritarrek elkarretaratzea eta bideo emanaldia antolatu dituzte. "Torturari STOP!" lelopean arratsaldeko 19:00tan elkarretaratzea egingo da Plaza Barrixan. Euskal Herrian aplikatu den torturaren azalpenak eta bizi esperientziak azaltzen dituen bideo emanaldia 19:30ean hasiko da Gaztetxean.

Irure auzokoak haserre

Irureko bizilagunek eta Unamuno enpresako ordezkariak, azaroko luiziak eragindako kalteak konpontzeko lanak gelditu daudela salatu zuten: "Inork ez digu erantzun argi bat ematen. Hiru hilabete eta gero desesperatzen hasi gara". Kolokan dagoen harkaitz batek bidera jausteko arriskua duela eta zerbait larria gertatu aurretik lanen erantzuleak bilatzeko eskatu zuten. Unamuno eraikinaren zati bat ere prezintatuta dute. Arluziagak argitu zien Aldundiarekin ipini dela harremanetan baina oraindik ez duela erantzunik jaso.



Informazio gehiago



Udalak bost herritar kontratatu ditu eta hiru proiektu martxan ipini

Lanbidek osotasunean finantzaturako bost kontratazio egin ditu Udalak: bi lagun brigadako laguntzarako lanak egiteko, herriko argazki zaharren bilketarako bat eta herriko euskalkia eta toponimia aztertzeko beste bat. Langile hauek sei hilabeterako lanaldia izango dute. Honez gain, herriko nekazaritza produktuen kontsumoa sustatzeko bi hilabetez jardungo du beste herritar batek. Egin-kizun guzti hauek Udal Gobernuaren asmoetan jasotzen diren egitasmoak dira. Lan guztiak osotasunean lantzeko kontratu

denbora luzeagoak behar direla badakien arren, gai denetan oinarriak jarri nahi dituela esan du Udalak, gerora lanean jarraitu ahal izateko.



Toponimiako proiektuak lekuen izenak batu eta aztertuko ditu, "urkiiazelai" esate baterako.

Murrizketak salatzen lau orduko lanuztea udalean eta Plaentxi H.I.n

Oinarritzko zerbitzu publikoetan Eusko Jaurlaritzak ezarri nahi dituen murrizketen aurrean, lau orduko lanuztea egin zuten atzo udaleko harrera bulegoetako langileek eta Plaentxi Herri Ikastetxeeko zenbait irakasleak. Zehazki, irakaslegoaren %73,68ak bat egin zuen ELA, LAB eta STEE-EILAS sindikatuekin deialdiarekin. Azken asteotan gainera, elkarretaratzeak egin dituzte aipaturako murrizketak salatzen.

leei behar duten arreta eskaintzeko, aukera urriagoak ditugulako proiektuak eta formazioa garatzeko eta lan baldintza kaskarragoetan aritu behar dugulako". Mobilizazio gehiago izango direla iragarri dute.

Iturria: Ezozi Larrañaga



Urtarrilaren 31an irakasleek egindako lanuztea.

Kalitatean eragin zuzena

Herri ikastetxeeko irakasleek, neurri hauek aplikatzeak irakaskuntza publikoaren kalitatean eragin zuzena izango duela gogorarazi dute: "seme-alaben hezkuntza kalitatea delako arriskuan jartzten dena, baliabide gutxiago dagoelako, denbora bera ez dugulako ikas-



MAPFRE

SZ SORALUZE ZERBITZUAK S.L.

Juan Luis Ibarzabal - Ainhoa Ibarzabal

Gabolatz, 5-B Beheo
20.590 Soraluze (Gipuzkoa)
e-mail: jibarza@infosegocio.com

Tel: 943 75 16 58 - 943 75 30 12
Mugikarra: 649 49 79 59 - 649 75 90 78
FAX: 943 75 16 10

Javier Alberdi



EUSKO LABEL

Baimendutako harategia

Euskal Okela

Carnicería autorizada

Errebal kalea, 24 • Tel. 943 75 19 32 • Soraluze

“Jatera bakarrik ez, disfrutatzera zatoz” *Zigor Sololuz*

Publikoari atea itxita eduki arren, bezeroa hartuko lukeen adeitasun berberaz hartu gaitu Zigor Sololuzek Mugaritzen. Bertako maître-a da 25 urteko plaentxiarra. Iruditu ez arren, barruan jo eta su dihardute etorriko dena egoki antolatzen, bezeroak ikusi ez baina baloratuko duena prestatzen. Zaila da halako isil eta bare dagoen lekua hilabete batzuk barru bestela imajinatzea.

Ingeniari zindoiaren eta zela amaitsu dozu Mugaritzen biharian?

Asteburuko lan bat bihar neban, kurrikuluma bialdu eta deittu egin zosten. Nik ez nakixan ezer, kafe bat egitten bez, hau izan zan bizitzako lehenengo lana. Sekula esperientziarik euki ez eta oso gogorra izan zan Mugaritzera etorrera. Makilakadaka ikasi dot.

Zer da zehazki zure egitekua?

2008xan kamarero moduan hasi eta iaiztik “maître” lana daukat. Kamareruan ardura-duna da, dana organizatzen ibiltzen dana.

Eskaintzen dan guztian berri daukazu?

Plater guztien elaborazinua ikasi bihar dogu, horregaittik urtian behin menu guztia dastatzen dogu. Oso desberdinak dira eta zerbitzatzerakuan zuk ez dakizu zela jan bihar dozun edo sukaldarixak zer lortu nahi daben. Eta horretarako gare gu.

Zenbat lagun egoten zarete zerbitzuan?

Kamareruak eta maître-ak hogeit bat lagun gara. Zerbitzua hasi aurretik, bilera bat egitten dogu bakoitzan zeregina zehazteko. Nik ongi etorrixa emoten dotset, ze esperientzia biziko daben azalduaz. Ze Mugaritzen ez da jan bakarrik egitten. Guk pentsatzen dogu esperientzia bat dala eta esperientzia hori esplikatzan saiatzen gara.

Zela daroiazu munduko jatetxe onenatarikuan lan egitteko erantzukizuna?

Ezin dozu imajinatu zelako tentsiua egoten dan hemene zerbitzua hasi aurretik. Alkarri garrasika ibiltzen gara... Munduko hirugarren jatetxe onena izanda, dan-dana neurtzen doskue eta beraz, tentsinua haundixa da. Batek faiatzen badau, danok atzetik. Baina zerbitzuan gertatzen dana, zerbitzuan geratzen da. Hortik kanpora lagun oso onak gara. Bilera asko egitten ditugu eta bihargin danon iritxizak kontuan hartzen dira. Horregaittik nago gustora hemen.

“Bezerua etxian moduan sentiarazi nahi dogu”

Koreografuekin bihara egin ei dozue zerbitzu on bat eskaintzeko.

Bi koreografo dauzkagu gure mobimentuak zaintzeko eta gure presentzia ez dein igerri. Gauzarik sinplienak lan haundixa dauka atzetik. Zaratarik egin bare, konturaterako platera aldatuta daukazu eta jendiak aluzinatu egitten dau. Mahai tresnak ipintzeko mugimendua be entsaiatu egitten da, “mugimenduan kalitatia” deitzen dotsaguna. Koreografuekin lan egitten lehenengukau gara. Oin desinibizio tailarra jasoko dogu “La Fura dels Baus” antzerki konpainiagandik.

Zela jakin bezerua gustora dagan?

Aurpegira begiratuta dana ondo doian kontrolatu bihar dogu. Hola ez bada, bronkia geuretzat izaten da... Gogorra da, lehen ametsetan egitten neban! Oin askok, Twitterra darabil jaten dauana komentatzeko eta inoiz, etxerakuan, sare sozialetan sartu izan naiz afaltzen egon diranen inpresinuak irakurtzera. Telefonua mahaixan dauala ikusiz gero, kontuz!



Oin itxitta daukazue, esperimentaziorako eta denboraldi berrixa gertatzeko.

Apirilak 16ra arte itxitta egongo da. Ordu-
ra bittartian urteko plangintzia presta-
tuko da: sukaldian plater berri mordua
egin, teknika berriak aplikatu eta
salako zerbitzuko kontu asko ezta-
baidatzen dira.

Zerk desberdintzen dau Mugaritz bes- te jatetxietatik?

Gure helburu nagusixa jendia lasai egotia,
etxian moduan sentitzia da. Gustora. Jatetxe asko
dare, Frantzian esaterako, amerikaniakin jua
bihar zarana, itxuria bakarrik zaintzen dabe. Eta
guri horrek bost. Jatera gatoz. Ez horretara baka-
rrik, disfrutatzeraz gatoz.

Mugaritzen dana perfektua izaten saiatzen
gara. Produktu freskua eta sasoiari sasoi-
kua eskainiz beti. Sarrittan, egunekua.

Eta bezeruak. Zelako jendia jua- ten jatzue?

Normalian jendia jatorra izaten da. Au-
rreikuspen haundixakin heltzen dira. Diru-
dunak, horretzek izaten dira txarrenak. Etorri
izan dira beren helikopterua parkinian aparkatzen,
adibidez. Ostera, ohittuta ez darenak, aulkittik mobi-
tzeke bildurrez egoten dira... Astebarruan gehixena
kanpotarra izaten da eta askotan ingelesez bakarrik
egitzen dogu. Gitxien euskeraz. Plaentxiarrak be gi-
txi, gustatuko jatan herritar gehixago ikustia.

Aurreikuspenak bete jatzuz?

Inundik inora. "Holako jatetxiak, kriston dirutzia
gastatu, ezer ez jateko, razino txikitxuak..." pentsa-
tzen neban nik. Aurreiritzixak aldatu egin jataz guz-
tiz. Gainera, oso jatun txarra naiz, eta hamen gauzak
probatzera ohittu naiz, dana ez jata gustatzen, baina
probatu, dana probatzen dot. Nere bizitza hau da eta
asko gustatzen jata, asko-asko-asko.

*"Bi
koreografokin
mugimendua
lantzen
dogu"*

*"Dana
neurtzen doskue
eta tentsinua
haundixa da"*

Zein da menu ekonomikuena?

Guk eskaintzen dogun menua 160 eurotik aurrera-
kua da, 175 euro ingurura arte. Hogeit plater
daukazuz, probatzeko. Edarixa eta BEZA
aparte. Batazbeste 200-220 euro bitar-
titan pertsonako. Noizian behin egin
ahal da, nik gomendatzen dot.

Sutia izan zenduen oin bi urte. Kalte materialiaz gain, kalte psikologikua haundixa izango zan...

Heldu, ikusi, eta negar batian danok. Ez gen-
kixan berriro zabalduko ete zan ala ez. Azkenian
zabaldu ahal izan zan, baina egin genduan lana...
Dana baltza eguan. Hortxe egin genduan ekipua.
Psikologuekin talde lana egin genduan, motibazi-
nua lantzeko.

Etorkizuna zela ikusten dau Zigorrek?

Momentuz hementxe, oso
gustora nago. Gusta-
tuko jatan atzerrira
juatia. Ingeniero mo-
duan nere burua ez dot
ikusten eta oingoz Mu-
garitzen. Sorluzeko baten bat
etorriko bada, abisatu deixela
aurretik!

Motzean

Bizitzeko toki bat: Donostia.

Bisitan joateko bat: Abu Dhabi.

Urtaro bat: Uda.

Liburu bat: El Medico (Noah Gordon).

Hobby bat: Argazkilaritza.

Pelikula bat: La cena de los idiotas.

Plater bat: Gurasuen etxeke baba gorrixak.

**Gustora juango zinateken
jateke baten izena:** Alinea.

Sukaldari bat: Jordi Roca.

Maitre bat: Ni aguantatu eta dana
erakutsi dostenak.



ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Otsailan 18xan eta 21ian ospatuko dira aratostiak. Bestiak beste, mozorro desfilea, dantzaldixa eta DJ-ak antolatu dittue 2012ko jairako.


Gustatzen jatzuz aratostiak? Mozorrotuko zara?

NURIA LÓPEZ



Neri gustatzen jataz! Sasoi batian familia dana mozorrotzen ginan, oin gitxiago. Hemen ospatzen dittut umiekin, eta ondo pasatzen dot. Baina kanpuan be ospatuko nittuzke!

JABI HERNANDEZ



Txikittan mozorrotzen nintzan baina ia ez jataz gustatzen eta ez naiz mozorrotuko. Oin umiekin ibiltzen naiz, herrixan ondo montatzen dabe aratustieta-ko jaixa. Hori bai, Tolosara be juango nintzake gustora.

IÑAKI SORALUZE



Bai, gustatzen jataz, mozorrotzia ez hainbeste, lehen ez zeguan holakorik. Sortu ziranian parte hartze haundixagua zeguan, jende gehixago mozorrotzen zan. Kanpora juango nintzake, Riora adibidez, hotza kentzera!

SONIA SUAÑEZ



Bai! Ondiokan dudatan nago mozorrotu ala ez. Beste urte batzuetan umiekin batera jantzi izan naiz. Azken momenturarte ez dot jakingo zer jantzi baina zer edo zer etarako dogu, seguru!

Eman zure iritzia sarean



Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak



T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOIA
K.Z. 20.000.434



HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



PASCUAL CHURRUGA, S.A.
Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Errekalde 21 T. 943 75 00 06
20590 SORALUZE T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61



MARI MAR HARATEGIA
Gurean Euskal Herriko produktuak!
Tel. 934 75 24 02
Santa Ana kalea, 4 Soraluze

Santa Agedaren omenez

M^a Angeles Zabalaren opila irabazle

V. San Blas opil lehiaketan lehen saria Maria Angeles Zabalak eraman zuen etxera. Bigarren saria Unai Rodriguez gaztearentzat izan zen eta Inma Matutek jaso zuen hirugarren saria. Zorionak denei!



Aratosteetan txokolatada Nagusien Egoitzan

Aratosteetako martitzenean moztorro jaia eta txokolatada izango dira Meseedetako Amaren Egoitzan. Arratsaldean izango da jaia, lehenengo, nagusi denak moztorrotu egingo dituzte ondoren, hilabete osoko urtebetetzeak txokolate boroaren bueltan ospatzeko. Jarraian dantzaldia ere izango dute bertaratzen direnek.

Luntxa eta dantzaldia jubilatuetan
Itxaropena jubilatuen etxeak ere, aratosteetako martitzena ospatuko du. Arratsaldeko 17:00etan luntxa egingo dute, 17:30ean kontzertua eta dantzaldia.

*Hamabost izar gatoz zerutik
edur maluten moduan,
egun polit bat pasatu nahixan
baserritarrei kantuan.*

*Gailurrak zuri, haizea hotza
ta edurra mara-mara,
beste behin ere Agedagatik
sakrifikatuko gara.*

*Kantu edarrok kantatu eta
leheritu zaizkigu bihotzak,
zergaitik dira momentu honek
hain urriak eta motzak.*

*(Baserriz baserri Santa Eskean
kantatutako koplak batzuk)*



Goian: Santa eskian baserriz baserri.

Abesbatzako eta musika eskolako lagunak kantuan.



Iturria: Jon Basauri

Iturria: Itziar Burunza

Bideoak ikusteko  .com

Kultur ekitaldien agenda

Gaur, barixakua:

HELDUENTZAKO ZINEA
"Urteberri On, Amona!"
Zuz.: Telmo Esnal, Euskal Herria 2011
Gabeko 22:15ean, Zinean
Prezioa: 2 euro

Ant: Udaleko Kultura Batzordea

Gaur, barixakua:

KONTZERTUA
"Napoka Iria"
Gabeko 23:30etan Gaztelupe tabernan

Ant: Gaztelupe taberna

Zilarrezko dominak Andoaindik

Eguraldiari aurre eginez, aurreko asteburuan Andoaingo Piano Jaialdiaren VII. edizioa ospatu zen. Ignacio Arana, Naroa Gil, Iraultza Ostolaza eta Abigail Monse-rrat herriko paino jotzaileek parte hartu zuten bertan eta denak zilarrezko dominarekin itzuli ziren etxera. Zorionak!.



Iturria: Musika Eskola

Belarrak
Loradenda
eta
belardenda
T. 943 75 30 11



GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34



Erregional Preferenteak taldeko liderra hartuko du

Aurreko jardunaldian "A" Erregionalak hirupuntuak eskuratu zituen Intxaurren



zelaian 1-3 irabazita. Garai-pen honekin laugarren kokatu da eta 33 puntu batu ditu, Getariako Keta eta Antzuolak beste. Bihar Lagun Onak taldeko liderraren aurka jokatu dute Preferenteko mutilek, Ezoizko zelaian. Klubetik zaleak gerturatzeko deia egin dute. Igoera fasea jokatzen diharduen Sorako Jubenilak 4-0 galdu zuen Burumendiren aurka. Eguraldiatik bertan behera geratu ziren "B" Erregionalaren eta Kadetearen neurketak.

Irene Alvarez Euskal Herriko Boulder Liga jokatzen ari da

Urtarrilaren 28an hasi zen Gasteizen lehiatzen Irene, iaz lehenengo saria eskuratu zuen txapelketa berean. Denera

lau froga izango ditu, hamabostean behin. Aldi bakoitzean, hiru bloke igo beharko dituzte. Aurten Zuriñe Arrue eta Goizane Saez de Olasagoitia ditu aurkari, baina indartsu ikusi du bere burua: "Ondo ibili naiz lehenengo frogetan. Baina aldi bakoitzian bloke desberdinak igo bihar izaten diranez, ikusi egin bihar zela moldatzen naizen hurrengo lehiatan". Otsailaren 11n, 25ean eta martxoaren 10ean izango dira froga egunak. Euskadiko eta Espainiako txapelketara joateko aukera ere aztertzen diharduela esan digu Alvarezek.

Iturria: Irene Alvarez.



Irene Boulder ligako lehenengo frogan.

Hilaren 26an izango da Soraluze Txirrindulari Saria

Soraluzeko Kirol Elkarteak 23 Surtetik beherako txirrindulari gazteentzat antolatzen duen lasterketa otsailaren 26an izango da. Txirrindulariak Mandiola industrialdetik irtengo dira goizeko 9:45ean eta Estaziño kaletik hartuko dute Eskoriatzara bidea. Mendaro, Angiozar, Asensio Goia eta Bergara igaro ostean, San An-

dres auzoan bukatuko da froga, 12:30ak inguruan. Mikel Hernandezek 23 urte beteko ditu aurten eta ondorioz ezin izango du Soraluze Sarian lehiatu. Beste hainbat froga prestatzen dihardu, Memorial Valenciaga esaterako. Hurrengo lehia hilaren 25ean izango du Hernandezek, Zumaian.

EMAITZAK

PELOTA

Xala – Laskurain	22
Bengoetxea VI – Apraiz	12
Xala – Laskurain	17
Olaizola II – Beroiz	22
Atxotegi – Irureta	22
Bilbao – Retegi VI	20
Atxotegi – Altuna	22
Asier Beitia – Galarza VI	19

FUTBOLA

Sora (Erreg. Pref.) – Zestoa	2-1
Zestoa "B" – Sora (Erreg.)	0-0
Sora (Jub.) – Hernani "B"	1-0
Sora (Kad.) – Arizmendi	3-2
Sora (BHI mutilak) – San Patricio	3-4
Sora (BHI neskek) – Bergara K.E.	2-3
Intxaurre – Sora (Erreg. Pref.)	1-3
Sora (Erreg.) – Gazteak	atzeratuta
Sora (Jub.) – Burumendi	4-0
Sora (Kad.) – Arrasate "B"	atzeratuta
Sora (BHI mutilak) – Mundaiz IK	atzeratuta
Urki – Sora (BHI neskek)	3-0

AGENDA

PELOTA

Gaur 22:00etan Urretxun (etb1)
Xala – Laskurain
Aritz Lasa – Zubietta

Gaur Donezteben, arratsalde
Atxotegi – Aldape
Mitxelena – Madariaga

FUTBOLA

Zapatua 11, 16:30ean Ezozin
Sora (Erreg. Pref.) – Lagun Onak C.D.

Domeka 12, 17:30ean Unben
Eibartarrak F.T. – Sora (Erreg.)

Zapatua 11, 19:00etan Ezozin
Sora (Jub.) – Hondarribia

Zapatua 11, 11:00etan Ezozin
Sora (Kad.) – Eibartarrak F.T.

Zapatua 11, 12:30ean Haranen
Usurbil F.T. – Sora (BHI mutilak)

Zapatua 11, 12:30ean Ibarran
Arizmendi K.E. – Sora (BHI neskek)

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Amagoia Ostolaza Txurruka

ARATOSTIAK 1984AN

Erretratu honetan 1976xan jaixotakuen kintadia ageri da, aratostietan. Egunak agintzen daben moduan gelakide danak talde argazkixa etara zeben Plaza Zaharrian mozorrotuta.

1984ko otsaila da eta umiak zortzi bat urte dittue. Jaixaz gozatzeko gertu dare, dotore, daganeko nahikua klasikuak diran mozorruak soinian dittuela: mexikarra, panda hartza, pitufua, pailazo, mosketerua, txinatar edo bakero.

Argazkixan:

Goixan: Jon Basauri, Iñigo Mendia, Aitor Unamuno, Aitor Sudupe, Eneko Iriondi, Vanessa Cruz †.

Bigarren lerruan: Markel Galarraga, Eduardo Alvarez, Jose Laskurain, Lorena Gabilondo, Maite Elizburu, Aitor Ibabe, Amagoia Ostolaza, Oier Zubizarreta, Iñigo Perez.

Hirugarren lerruan: Nuria Muro, Eneida de la Cruz, Giomar Fernandez, Leire Herrero, Ander Santamaria, Imanol, Iñaki Aldazabal.

Duten garrantziaz jabetzeko, faltan izan arte itxoiten dugu maiz



EUSKARAZKO
HEDABIDE
EZ PUBLIKOAK



Soratostiak 2012



Otsailak 18, ZAPATUA:

TRIKITILARI ETA BURUHANDIAK. 12:30ean, kalez-kale.
HAURRENTZAKO JOLASAK. 17etan, Plaza Zaharrean.
ARATOSTEETAKO PREGOIA. 18:30ean, Udalezxean.
MOZORROEN DESFILEA. 18:30ean, Zubi Nagusijik irfenda.
DANTZA ERAKUSTALDIA. 19:30ean, Plaza Zaharrean.
DANTZALDIA "Erlaxi" taldearekin. 20etan eta 23etan,
Plaza Zaharrean.

Otsailak 21, MARTITZENA:

HAURRENTZAKO PLAY-BACK LEHIAKETA. 18etan, frontoian.
MUSIKA SAIOA DJ Jon Urbiejarakin. 19etan, Plaza Zaharrean.
TXOKOLATADA. 19:30ean, Plaza Zaharrean.
MUSIKA SAIOA DJ Jon Urbiejarakin. 22:30ean, Plaza Zaharrean.
HELDUENTZAKO PLAY-BACK LEHIAKETA. 23:30ean, Plaza Zaharrean.
MUSIKA SAIOA DJ Jon Urbiejarakin. 24etan, Plaza Zaharrean.

